

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure zerbitzuak ondo funtzionatzeko hainbat funtsezko baliabide beharko ditugu, hemen gure produktua aurrera eramareko beharko ditugun zerbitzu eta baliabide guztiak azalduko ditugu. Horregatik, FZ taldeko taldekide bakoitzak produktuari jarri behar dioguna aipatuko dugu, gure abilezia eta zaletasunetan oinarrituta.



Lehenik, gure aplikazioa aurrera eramateko baliabide fisiko batzuk beharko ditugu, baliabide fisiko garrantzitsuena guretzat GPS-ak dira, izan ere, GPSrik gabe ezin dugu aplikazioa sortu. Bestalde, Uggasaren Lokala beharko dugu; wifia, ura eta argindarra ordainduta dakarrena. Baina baldintza batekin, lokala hutsik dator. Orduan, lan egiteko beste baliabideak guk eraman beharko ditugu:

ordenagailuak, mahaiak, aulkiak eta apalak. Gainera, zuzendariak, behar ditugun enpresa eta pertsonekin harremanetan jartzeko mugikor bat izango du. Horrez gain, teknikariak GPS-ak garraioetan jartzeko tresnak ere beharko ditugu; adibidez: pegamentua, destorniladorea, linterna. GPS-aren mantenu eta instalazioetara iristeko gure enpresako furgoneta bat edukiko dugu, izan ere, materiala batetik bestera eramateko toki asko duen garraio bat beharko dugu.

Baliabide fisiko guzti horiei esker, gure enpresa aurrera eramateko gai izango gara.

Gure negozioa aurrera eramateko, baliabide finantzario batzuk eskuratu behar ditugu gure produktua aurrera eramateko, izan ere, dirurik gabe ez goaz inora. Alde batetik taldekide bakoitzak diru kopuru bat jarriko du, diru kantitate berdina jarriko dugu denok. Horrez gain, bankuari mailegu bat eskatuko diogu, horrela, errezago egingo zaigu gure produktua garatzea.

Balorezko proposamenean aipatu dugun bezala, aplikazio bat eta web gune bat diseinatu behar dugu. Honen garapenean, Telmo izango dira arduraduna. Aplikazioen diseinu, sorkuntza eta kudeaketaren inguruko klaseak hartu zituen, eta txikitatit egon da interesatuta teknologia munduan. Horregatik, aplikazioa sortzeko pertsona egokia dela uste dugu.

Gure produktua hasteko funtsezkoa izango da GPS-ak garraioetan jartzea, horretaz, Txomin ardurako da. Mantenuan abila delako eta GPS horiek ondo ezagutzen dituelako. Horren ostean, aplikazioa martxan dagoenean GPS-en mantenuaz arduratuko da.

Enpresaren aurpegia Aslam izango da, izan ere, behar ditugun enpresekin akordioetara iristeko komunikazio eta konbentzitzeko gaitasunak handiak ditu. Adam gauza bat baino gehiago egiteko gai denez, gure enpresaren ekonomia kudeatuko du eta bidaltzen dituzten iradokizunak irakurtzeko ardura izango du, bi lan betetzeko abilezia duelako aukeratu dugu.

